LG-SS-197-2003
zer ote?
Zizurkilgo aisialdirako gida

MAIATZA
2020
Zk. 186 / UDABERRIA 2020 MAIATZA
Ernio Bidea 9A, behea, 20159 ZIZURKIL
www.zizurkil.eus / 943 691012

# DENA ONDO ATERAKO DA!
## TODO SALDRÁ BIEN!

Maiatzeko ZER OTE ere ez da herriko etxeetako buzoietara iritsiko, baina herritarren aldamenean jarraitu nahi dugu. Egoera berezi honetan hamaika ekimen sortu dira eta guzti horiek zuengana hurbildu nahi ditugu. Maiatza izaten da Zizurkilen kulturaren hilabetea eta KULTURA-EUSKARA BATZORDEAK MUGARRIEN gaia aukeratuta zuen hainbat ekintza martxan jartzeko, baina hurrengo urterako utzi beharko ditugu. Bitartean, GOZATU sortu diren hurrengo ekimen guztietaz!

## SARE SOZIALAK

KULTURA

KULTURA ETA EUSKARA

PLAZIDA OTAÑO LIBURUTEGIA

GAZTEZULO

CONOCE LAS REDES SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL

## KULTURA

ETXEAN ZAUDELA YOGA EGIN NAHI DUZU, ZUMBA PIXKA BAT, ALA, LASAI ESERITA, PATCHWORKEKO LANEN BAT?



ORAINTXE DUZU AUKERA, ZIZURKILGO KULTURA SAILEKO FACEBOOKEKO ATARIAN SARTUTA. ZIZURKILGO IKASTAROEN TUTORIALAK, ESKU-ESKURA.

INOIZ BAINO GAHIAGO, ZURE ONDOAN GAITUZU!

Zizurkilgo Udaleko Kultura Saileko ikastaroetako irakasleek proposaturiko bideoak ikusgarri dituzue KULTURA ETA EUSKARAKO FACEBOOKean Bixita gaitzazu eta ekin gehien gustatzen zaizun horri!

VISITA EL FACEBOOK DE CULTURA Y DISFRUTA DE LOS VIDEOS DE LOS CURSILLOS QUE SE IMPARTEN EN ZIZURKIL

## MAIATZA SALTSAN 2020: MUGARRIAK:

MUGARRIAK dira aurtengo MAIATZA SALTSANEKO gai nagusia eta KULTURA-EUSKARA BATZORDEA hamaika ekimen prestatzen ari zen kultur hilabete honetarako, baina egoerak dena etetea eskatu du. Hala ere, TEODORO HERNANDORENAKO kideak bideo bat prestatzen ari dira mugarrien inguruko istorio interesgarri batekin. Maiatza erdialderako prest izango dute eta gure sare sozialetan eta udaleko web orrian publiko egingo dugu. Adi egon!

http://www.zizurkil.eus/eu/herria/berriak/item/1886

DISFRUTEMOS DE UN MAIATZA SALTSA VIRTUAL CON VIDEOS Y RECORRIDOS RECOMENDADOS




## Maiatza konfinamenduan




## GAZTERIA

**GAZTEZULO** izan da hasiera-hasieratik EGUNERO-EGUNERO erronkak proposatu dizkiena gazteei. Maiatzerako ere sorpresa mordoa prest dugu! **Sartu eta GOZATU!**

PARTICIPA EN LOS RETOS DIARIOS QUE ENCONTRARÁS EN EL FACEBOOK E INSTAGRAM DE GAZTEZULO.

## LIBURUTEGIA

### ASTEAZKENETAKO IPUIN TARTEA:

Asteazkenetako IPUIN TARTEA berreskuratuko du liburutegiak eta zuen ipuin motzak bidaltzeko eskatu nahi dizuegu. Animatu eta bidali zuen ipuina!

LOS CUENTOS DE LOS MIÉRCOLES

### LEHIAKETETAKO IRABAZLEAK:

PLAZIDA OTAÑOKO facebookean ikonoa jarri eta bertan ikus ditzakezue lehiaketetako saridunak. ZORIONAK GUZTIOI!!!

GANADORES DE LOS CONCURSOS

### LIBURUAK BUELTATZEA ETA MAILEGU SISTEMA:

Liburutegiak utzita dauzkan liburu eta ipuinak jasotzeko kanpaina hasi du. Liburutegiko kanpoaldean kaxa bat jartzen da 9:00etatik 14:00etara, liburuak bertan uzteko. Liburuak bildu ondoren, mailegu sistema martxan jartzeko asmoa dago. Maileguak egiten hasteko epea publiko egingo da web gunean eta sare sozialetan. Jarrai gaitzazu!

RECOGIDA DE LIBROS Y SISTEMA DE PRÉSTAMOS

SUMÉRGETE EN LAS PROPUESTAS DE LA BIBLIOTECA PLAZIDA OTAÑO

## EUSKARA

### ETXEALDETIK EUSKARALDIA:

Maiatzaren 4an bukatuko da **ETXEALDETIK** EUSKARALDIA eta herritarrek sortutako bideo eta proposamenak jasotzeko irrikaz gaude. Bidali zurea **bulegoa@zizurkil.eus** helbidera!

### EUSKARALDIA:

Urte bukaeran ospatuko da **EUSKARALDIA** eta, banakako pertsonez gain, ENTITATEEK parte hartzeko aukera izango dute. Hauen artean ELKARTEAK eta KOMERTZIOAK gonbidatu nahi ditugu izen ematera. **ANIMATU ETA IZEN EMAN EZAZUE! GUZTION ARTEAN EUSKARA BIZIRIK!**
**www.euskaraldia.eus** orrian topatuko duzue informazio dena eta, zalantzarik izanez gero, Udal Bulegoetako telefonora deitu: **943-691012**




### EGIZU ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ!

Laster jasoko dugu etxean urteko ERRENTA AITORPENA. Gogora ezazu, hori ere, EUSKARAZ egiteko aukera duzula.

## OPORRETAN EUSKARAZ

Aurtengoan udaleko irekiak antolatuko diren zalantzan dago. Egoerak aurrera egin ahala jakinaraziko da udalekuak martxa jarriko diren ala ez.

LA CELEBRACIÓN DE LAS COLONIAS EN DUDA.




## PAREKIDETASUNA

Zizurkilen 24 ordutako harrera egingo duen telefonoa martxan jarri dugu, bai emakume, haur, nerabe, gazte eta baita adineko pertsonek ere laguntza behar badute.

EN ESTA SITUACIÓN, TAMBIÉN HAY ALGUIEN QUE PUEDE AYUDARTE. CONTACTA CON EL TEL. QUE SE HA PUESTO EN MARCHA EN ZIZURKIL.